



**Dunboa LHI IKASTEKO KOMUNITATE-**  
**ZENTROAREN ANTOLAKUNTZA ETA**  
**JARDUERA ARAUDIA**

## DUNBOA LHI IKASTEKO KOMUNITATE-ZENTROAREN ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

### SARRERA

1. Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako berezko agiria da. Euskal Eskola Publikoaren Legeak 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, derrigorrezkoa da.

Artikulu berak A.J.Aren eduki minimoak zehazten du eta honakoa izango da:

- Ikastetxearen antolaketa-egitura eta funtzionamendua definitzea.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien artean bizikidetasuna eta errespetua bermatzen duten arauak, baita bulegoen eta instalazioen erabilera egokia zehazten dutenak ere.
- Ebaluazioetan erreklamazioen araubidea.

2. Agiri honek hurrengo ezaugarriak ditu:

- Derrigorrezko edukira mugatzen da. Dekretuak berak ikasleen eginkizun bezala eskola-arauak (besteak beste, ikastetxeko gobernu-organismoek beren aginpideen eremuan onartutako guztiak) errespetatu behar dituztela onartzen duenez, erabilgarriagoa dirudi A.J.Ak bakarrik ezinbesteko esparrua zehaztea.
- I. Tituluan gobernu-organismoen aginpideak edo funtzioak, koordinazio didaktikoa edo partaidetza aipatzean, dagozkion legezko xedapenetara jo behar da, testuan hitzez hitz sartu gabe. Orrialdearen oinetako oharretan Euskal Eskola Publikoaren Legeak aginduta ikastetxe guztietarako derrigorrezkoak direnak azaltzen dira. Halaber, aukerakoak izanik, arau desberdinetan hezkuntza-administrazioak onartzen dituenak azaltzen dira, betiere ekonomiaren, administrazioaren eta ordutegiaren ikuspegitik eskatutako baldintzak betetzen badituzte.
- Ildo horretatik, gauza bera gertatzen da II. tituluan, bizikidetzara arautzeko xedapenez ari denean, 201/2008 Dekretura jotzeko esaten zaigunean. Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta Eskubide eta Eginkizunei buruzko Dekretuak duten espiritu eta filosofiarekin oso-osorik bat, bizikidetasunerako eskubideak errespetatu eta eginkizunak bete behar dira. Titulu horretan ikasleen oinarritzko eskubideen bermeak sartzen dira, 201/2008 Dekretuak eskatzen duen bezala, baina, oro har, legezko testuetara jotzea nahikoa dirudi. Horiek dagozkion eranskinetan jasotzen dira. Gobernu-organismoen aginpidea da OOGren edo zuzendaritza-taldearen erabakien bitartez horiek zehatzea.
- III. Tituluan 201/2008 Dekretuak ikasturte osoan helburuen eta ebaluazio-irizpideen publikitateari dagokionez eta zuzendutako azterketak ikusteari buruz xedatutakoa bermatzeko prozedurak zehazten dira.

## ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### **1. artikulua. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroaren izena, irakaskuntzak eta izaera**

1. **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroa** ikastetxe publikoa da eta Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak irakasten ditu, ikasturte akademiko bakoitzean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, hau da, titularrak egindako plangintzaren arabera.

2. Euskal Eskola Publikoaren Legeak 3.1. artikuluan xedatutakoari jarraiki, **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroa** hurrengo moduan definitzen da: **KOMUNITATE** plurala, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, bere ingurunean gizartearen eta kulturaren ikuspegitik errotua, parte-hartzailea, desberdintasunak orekatzen dituen eta aniztasuna integratzen duena.

3. **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroak** berezko helburutzat hartzen ditu Euskal Eskola Publikoen Legeak 3.2. artikuluan xedatutakoak. Gobernu, partaidetza eta koordinazio didaktikoaren organo guztiek, baita irakasleek eta irakaskuntzan aritzen ez diren langileek ere, beren jarduera helburu horiek lortzera bideratuko dute.

4. **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroak** bere eskubideen aplikazio arduratsua eta gainerako guztien eskubideekiko errespetua ikastetxean bizikidetasunaren oinarri bezala onartzen ditu.

## I. TITULUA. DUNBOA LHI IKASTEKO KOMUNITATE ZENTROAREN ANTOLAKETA DEFINITZEA.

### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **2. artikulua. Gobernu-organoak <sup>1</sup>**

1. **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroak** orokorrean Euskal Eskola Publikoaren Legeak aurrez ikusten dituen gobernu-organo kolegiatuak eta kide bakarreko organoak izango ditu, horretan xedatutako aginpide eta funtzioekin.

a) Kolegiatuak: OOG, irakasleen klaustroa eta zuzendaritza-taldea.

b) Kide bakarreko organoak: zuzendaria, ikasketa-burua eta idazkaria.

---

<sup>1</sup> Artikulu honen 1. atalean ikastetxe guztietarako derrigorrezko organoak sartzen dira, Euskal Eskola Publikoaren Legearen babesean. 2. atalean, berriz, derrigorrezkoak izan gabe, hezkuntza-administrazioak ekonomia, ordutegi edo administrazioaren ikuspegitik zerbait onartzen dienak daude, ikasturtearen antolaketa-ebazpenean urtero xedatutako baldintzei erreparatuz. 3. atalean beste edozein sartu behar da, EEPLk baimena ematen baitu, baina ekonomiaren edo administrazioaren ikuspegitik administrazioak ez du onartzen.

### 3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza<sup>2</sup>

1. **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroaren** gobernuan ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta Udalak OOGren bidez parte hartuko dute. Xede horrez, ikastetxean batzorde mistoak egituratu dira. Ikasgelako jardueretan, ordea, boluntario bezala esku hartuko dute.

2. Horrez gain, Euskal Eskola Publikoaren Legeak xedatutakoari jarraiki, **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroaren** jardueretan partaidetza-organo berezia gurasoen batzarra izango da.

3. **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroa** ikastetxeko gurasoen eta ikasleen elkarteen egoitza izango da, elkartearen jarduerarako lokalak eskuratuko dizkie eta hezkuntza, kultura eta kirolaren jarduerak sustatuz ikastetxearen bizian parte hartzeko erraztasunak emango dizkie.<sup>3</sup>

### 4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak<sup>4</sup>

**DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko** koordinazio didaktikoaren organoak klaustroaren zuzendaritzapean egongo dira eta koordinazio pedagogikoaren batzordea, behar bereziei arreta eta orientazioa eskaintzeko saila, tutoretzak eta maila eta zikloko irakasleen taldeak izango dira.

### 5. artikulua. Gobernu, partaidetza eta koordinazio didaktikorako organoen jardueraprintzipioak<sup>5</sup>

1. Ikastetxeko aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek zainduko dute ikastetxeko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoek, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.

2. Gainera, gobernu, partaidetza eta koordinazio didaktikorako organoek, bakoitza bere aginpideen eremuan, ikasleei, irakasleei, ikasleen gurasoei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei onartutako eskubideak betetzen direla bermatuko dute eta dagozkion eginbeharrak betetzen dituztela zainduko dute.

3. Era berean, ikastetxearen bizian, kudeaketan eta ebaluazioan hezkuntza-komunitateko kide guztiek eraginkortasunez parte hartzeko erraztasunak emango dituzte.

<sup>2</sup> OOG eta 2. ataleko partaidetza-organoak EEPLk derrigorrez ezartzen ditu. Atal berrian, 3.ean, gurasoen elkarreak sartzeari EEPLk ez du zuzenean derrigortzen, baina beste legezko aginduei, hala nola elkartzeko eskubidea babestea agintzen duen eskubide eta betebeharren dekretu berari erantzuteko modurik hoberena da.

<sup>3</sup> Mugak azpiegiturak eta jarduerak akademikoaren ohiko garapenak ezarritakoak dira.

<sup>4</sup> EEPLk irakasle-taldearen kontzeptu orokorra besterik ez du aurrez ikusten. Motak beste arau batzuetatik sortzen dira, kasu bakoitzean ikusiko den bezala.

<sup>5</sup> Zentroko organo desberdinei aplikatzen zaizkie, maila guztietan horren ordezkari bezala, Legeak eta Eskubide eta Eginkizunei buruzko Dekretuak ikastetxeari ezartzen dizkion betebeharrak.

## II. KAPITULUA. GOBERNU-ORGANO KOLEGIATUAK

### I. SEKZIOA. DUNBOA LHI IKASTEKO KOMUNITATE-ZENTROAREN OOG

#### 6. artikulua. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko OOGren izaera eta konposizioa

1. **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko** OOG ikastetxea gobernatzeko orduan hezkuntza-komunitatearen kide desberdinek esku hartzeko partaidetza-organoa da. OOG deritza.

2. OOGren aginpideak<sup>6</sup>

**DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko** OOGk EEPLk 31. artikuluan xedatutako eskumenak ditu.

3. **DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko** OOG honako kideek osatuko dute (EEPLren 32.2. artikulua):<sup>7</sup>

a) Zuzendariak; gainera, burua izango da.

b) Ikasketa-buruak.

c) Klaustroak aukeratu ostean, hamar irakaslek.

d) Ikasleen gurasoen 15 ordezkari; bat, hala badagokio, gurasoen elkarte adierazgarrienak izendatuko du, legez osatuta badago.

f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari batek.<sup>8</sup>

g) Udaleko ordezkari batek.

h) Ikastetxeko idazkariak; hori OOGren idazkari bezala arituko da. Ahotsa izango du, baina botorik ez.

#### 7. artikulua. OOG hautatu eta berritzea<sup>9</sup>

OOGren kideen erdia modu txandakatuan bi urtez behin berrituko da, arautzen dituen Dekretuak xedatutakoaren arabera eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketaren Sailak argitaratutako deialdiei jarraiki.

#### 8. artikulua. Burua eta ordezkaria ordezkatzea<sup>10</sup>

1. Ikastetxeko zuzendaria ez badago, ikasketa-burua edo, hala badagokio, ikastetxeko OOGren kide izanda, antzintasun handiena duen irakaslea izango da buru.

2. Idazkariaren ordezkari ikastetxeko OOGren kide den antzintasun gutxieneko irakasleak jardungo du lan horietan. Azkenekoak botorako eskubidea mantenduko du.

<sup>6</sup> EEPLk onartzen dizkion aginpideak, 2008ko ekaineko azkeneko aldaketak bame, I. ERANSKINEAN daude.

<sup>7</sup> OOG onartua ez duten ikastetxeetarako 1994ko maiatzaren 10eko Agindua aipatutako kide-kopurua adierazi da eta II. ERANSKIN bezala erantsi da. Baina gutxienez postuen herena irakasleentzat eta gutxienez erdia ikasleen gurasoentzat gordetzen duen edozein banaketa egin daiteke. Dena den, gurasoen eta ikasleen artean III. ERANSKINEAN agertzen den Dekretuak xedatutako ehunekoak errespetatu behar da.

<sup>8</sup> Administrazio eta zerbitzuetako langileen artean ikastetxean lanean diharduten langile guztiak sartu behar dira, hezkuntza-administrazioak izendatu baditu edo horrekin kontratua badute eta klaustroaren kideak ez badira.

<sup>9</sup> Arloari buruzko araudiari erreparatu behar zaio.

<sup>10</sup> Administrazio Prozedurari buruzko Legearen arauak jarraitzen dira.



## 9. artikulua. OOGren funtzionamendu-araubidea

1. OOGren bilerak kide guztiek bertan egon ahal izateko egunean eta orduetan egingo dira. Ohiko bileretan zuzendariak OOGren kideei deialdia bidaliko die bilerako aztergaien zerrendarekin eta eztabaidatu eta, hala badagokio, onartuko den dokumentazioarekin. Horiek gutxienez astebete lehenago jaso beharko dute.
2. Gainera, gutxienez berrogeita zortzi orduko aurrerapenez ohiz kanpoko deialdiak egin daitezke, gaiaren izaerak edo premiak hala gomendatzen duenean.
3. OOG hiru hilez behin eta zuzendariak deialdia edo gutxienez kideen herenak eskaera egiten duten guztietan bilduko da. Nolanahi ere, ikasturtearen hasieran bilera bat eta amaieran beste bat egitea derrigorrezkoa izango da. OOGren saioetara kide guztiek derrigorrez bertaratu beharko dute.
4. OOGk erabakiak gehiengo soilez (bertaratutako kideen erdia gehi bat) hartuko ditu, honako kasuetan izan ezik:
  - a) Hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AJA nahiz bere aldaketak onartu behar direnean; orduan, gehiengo osoa (OOGren kideen erdia gehi bat) beharko da.
  - b) Zuzendariaren izendapena berritzeko proposamena dagoenean; kasu horretan, bi herenen gehiengoa beharko da.<sup>11</sup>
5. Araudi honek eta hezkuntza-legeriak aurrez ikusten ez duenerako, OOGren funtzionamenduak Administrazio Prozedurari buruzko Legeak II. Tituluaren 2. kapituluaren xedatutakoa bete beharko du.

## 10. artikulua. OOGren batzordeak

1. OOGk EEPLren 36.3. artikuluan aipatutako funtzioak betetzeko batzorde iraunkorra eta batzarrak eskuordetu ostean beste edozein eratuko du. Horretan zuzendaria, ikasketa-burua, irakasle bat eta ikasleen bi guraso izango dira. Sektore bakoitzak berea aukeratu du. Erabakiak gehiengoz hartuko dituzte eta boto haztatuaren sistema erabiliko dute.<sup>12</sup>
2. Konposizio eta boto haztatuaren sistema berdinarekin bizikidetasun-batzordea eratuko da, ikastetxean bizikidetasun-giroa mantentzearekin zerikusia duten funtzioak betetzeko, baita kontrako jokabideak eta bizikidetasunerako oso kaltegarriak direnak ezagutu eta neurri zuzentzaileak aplikatu eta aztertzeko ere.<sup>13</sup> Komenigarria litzateke batzorde honetako kideak, aldi berean, bizikidetasun-behatokiaren kideak izatea.
3. Halaber, batzorde ekonomikoa eratuko da eta konposizio berdina izango du. OOGri horrek emandako gai ekonomikoak jakinaraziko dizkio.<sup>14</sup>
4. OOGk gai berezietarako berak zehaztutako moduan eta eskuordetutako aginpideekin beste batzorde batzuk sor ditzake. Sortzen diren batzorde guztiek, artikulua honetako aurreko hiru ataletan zehaztutakoek barne, beren aginpideko gai buruz txostenak, azterketak eta proposamenak egin ditzakete. Indarreko araudia betetzeko artikulua honetako 1. eta 2. ataletan aipatutako gai buruzko araudian berariaz aurrez ikusitako kasuetan izan ezik, erabakiak hartzeko berariaz eskuordetzea beharrezkoa izango da eta konposizioak OOGren konposizioaren proportzionala izan beharko du,

<sup>11</sup> EEPLren agindua da.

<sup>12</sup> EEPLk eskaintzen dituen bi aukeretakoa bat da eta eraginkorrena dirudi. Proportziorako konposizioa Legeak berak ezartzen du. Boto haztatuaren sistemaren ondorioz, batzordean gurasoen, ikasleen eta irakasleen botoek OOGren osoko bilkuran duten garrantzi bera dute. Ahalik eta gutxienez (guraso bat eta irakasle bat) proposatzen da, baina gehiago izan daitezkeela argi dago.

<sup>13</sup> 160/1994 Dekretuak bizikidetasun-batzordea borondatezko zat jotzen zuen eta egungo Eskubide eta Eginbideei buruzko Dekretuak izaera bera ematen dio. EEPLk ez du berariaz proportzioa mantentzera derrigortzen, baina bere espirituarekin koherenteena dirudi.

<sup>14</sup> 82/1986 Dekretuak aurrez ikusitako batzordea da. Aipatu Dekretuak lehenengoz arautu zituen gobernu-organo kolegiatuak. EEPLk eta ondorengo dekretuek ez aipatu arren, mantentzea dirudi egokiena. Hasierako erregulazioa IV. Eranskinean dago.

batzorde iraunkorrerako eta bizikidetasun-batzorderako zehaztutakoaren moduan. Bakarrik gehiengo soila eskatzen duten erabaki guztiak eskuordetu ahal izango dira.<sup>15</sup>

## II. SEKZIOA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

### 11. artikulua. Irakasleen klaustroaren izaera eta konposizioa

1. Klaustroa DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroaren gobernu-organoa izateaz gain, ikastetxean irakasleek parte hartzeko berezko organoa da, baita koordinazio didaktikoaren goi-mailako organoa ere. Irakaskuntzaren alderdi guztiei buruz planifikatu, koordinatu, erabaki eta berri emateko ardura du.
2. Klaustroaren burua zuzendaria izango da eta ikastetxean zerbitzuak eskaintzen dituzten irakasle guztiak kide izango dira. Idazkaritza-lanetan DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroan lan horretan diharduenak jardungo du.
3. Zuzendaria ez badago, klaustroaren burua ikasketa-burua izango da eta biek falta badira, irakasleen artean antzintasunik gehiena duena. Idazkariaren ordezkari antzintasunik gutxiena duen irakaslea arituko da.

### 12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-araubidea

1. Klaustroa gutxienez hiru hilez behin eta zuzendariak deialdia edo gutxienez kideen herenak eskaera egin ondoren elkartuko da. Ikasturtearen hasieran klaustroaren saio bat eta amaieran beste bat derrigorrezkoak izango dira.
2. Kide guztiek klaustroen saioetara nahitaez bertaratu beharko dute.
3. Ohizko saioetarako deialdia gutxienez astebete lehenago egingo da. Salbuespenez, gaien izaerak edo premiak hala eskatzen duenean, ohiz kanpoko saioak egin daitezke, deialdia gutxienez berrogeita zortzi orduko aurrerapenez egiten bada.
4. Araudi honek eta hezkuntza-legeriak aurrez ikusten ez duenerako, klaustroaren funtzionamenduak Herri Administrazioen Araubide eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak II. Tituluko 2. kapituluaren xedatutakoa bete beharko du.

### 13. artikulua. Klaustroaren aginpideak

Irakasleen klaustroari EEPLk 35. artikuluan eta indarreko gainerako xedapenek aipatzen dituzten funtzioak betetzea dagozkie.<sup>16</sup>

## III. SEKZIOA. ZUZENDARITZA-TALDEA

### 14. artikulua. Zuzendaritza-taldea

1. Kide bakarreko gobernu-organoek DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko zuzendaritza-taldea osatzen dute eta beren funtzioak betetzeko orduan, modu koordinatuan dihardute.
2. Zuzendaritza taldeak EEPLren 36. artikuluan emandako funtzioak izango ditu,<sup>17</sup> baita OOGk edo klaustroak, bakoitzak bere aginpideen esparruan, eskuordetzen dizkionak ere.

<sup>15</sup> Gurasoei eta irakasleei dagokienez, proportzionaltasunaren betekizuna iraunkorrerako Legeak xedatutakoaren pareko aplikazioa besterik ez da.

<sup>16</sup> OOGren kasuan bezala, arloan dagoen araudiari erreparatu behar zaio. Egun EEPLk jasotako aginpideak V. ERANSKINEAN daude.

<sup>17</sup> VI. ERANSKINEAN dago.

3. Zuzendaritza-taldeak aukeran bileratara hezkuntza-komunitateko edozein kide gonbida dezake, bidezkoa iruditzen bazaio. Era berean, ikastetxeko ikasleengan eta, bereziki, zikloetako koordinatzaileengan edo proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleengan komenigarritzat jotzen dituen funtzioak eskuorde ditzake.

4. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroan zuzendaritza-taldea honako kide bakarreko organoek osatzen dute:

- Zuzendariak
- Ikasketa-buruak
- Idazkariak

### III. KAPITULUA. KIDE BAKARREKO GOBERNU-ORGANOAK

#### 15. artikulua. Zuzendaria

1. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko zuzendariak ondorio guztietarako ikastetxearen ordezkaria du, izan ere, ikastetxean hezkuntza-administrazioaren ordezkari naturala da eta gobernu-organo kolegiatuen burua izango da.

2. Bere funtzioak eta aginpideak EEPLk 34. artikuluan xedatzen ditu.<sup>18</sup>

#### 16. artikulua. Ikasketa-burua

Ikasketa-buruak, zuzendaritza-taldearen kide izateagatik dituen aginpideez gain, EEPLk 41. artikuluan ematen dizkionak dagozkie.<sup>19</sup> Ikasketa-burua, eskuordetu ondoren eta zuzendariaren agintaritzapean, ikasleen burua izango da araubide akademikoari dagokion guztian eta irakasle-taldeen eta tutoreen jarduerak koordinatuko ditu.

#### 17. artikulua. Idazkaria

Idazkariak zuzendaritza-taldearen kide izateagatik dagozkion aginpideez gain, EEPLk 42. artikuluan aipatutakoak beteko ditu.<sup>20</sup> Eskuordetu ondoren eta zuzendariaren agintaritzapean, ikastetxeko administrazio eta zerbitzuetako langileen burutza eramango du.

#### 18. artikulua. Kide bakarreko gobernu-organismoak izendatu eta kargutik kentzeko proposamenak

Kide bakarreko organismoak izendatu eta kargutik kentzeko proposamenak EEPLk eta araubidezko xedapenek aurrez ikusitakoarekin bat egingo dira.

#### 19. artikulua. Zuzendaritza-taldeko kideak ordezkatzea

1. Zuzendaria ez badago edo gaixorik izanez gero, bere funtzioak behin-behinekoz ikasketa-buruak beteko ditu.

2. Ikasketa-burua ez badago edo gaixorik izanez gero, bere funtzioak behin-behinekoz zuzendariak izendatzen duen irakasleak beteko ditu. Dena den, bere erabakiaren berri OOGri eman beharko dio.

<sup>18</sup> VII. ERANSKINEAN dago.

<sup>19</sup> VIII. ERANSKINA

<sup>20</sup> VIII. ERANSKINA



3. Era berean, idazkaria ez badago edo gaixorik izanez gero, funtzioak zuzendariak izendatzen duen irakasleak beteko ditu eta OOGri horren berri emango zaio.
4. Zuzendaria ez egoteagatik edo gaixorik egoteagatik ikasketa-buruak jarduten duenean, berak lehenengoaren aginpide guztiak izango ditu, artikuluko 2. eta 3. ataletan jasotzen dituenak barne.

#### IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA-KOORDINAZIORAKO ORGANOA

##### **20. artikulua. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko koordinazio-organoak**

DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroan honako irakaskuntza-koordinaziorako organoak izango dira:<sup>21</sup>

- a) Behar bereziak orientatu eta arreta eskaintzeko saila
- b) Koordinazio pedagogikorako batzordea
- c) Tutoreak eta taldeko irakaskuntza-taldeak
- d) Zikloko irakaskuntza-taldeak

#### I. SEKZIOA. BEHAR BEREZIAK ORIENTATU ETA ARRETA ESKAINTZEKO SAILA<sup>22</sup>

##### **21. artikulua. Behar bereziak orientatu eta arreta eskaintzeko sailaren konposizioa**

Orientazio-saila honako kideek osatzen dute:

- a) Aholkulariak
- b) Pedagogia terapeutikoan adituak diren maisu-maistrek
- c) Ikastetxeko langileen barruan izan daitezkeen beste adituek (entzumena eta lengoia...).

##### **22. artikulua. Behar bereziak orientatu eta arreta eskaintzeko sailaren funtzioak**

1. Orientazio-sailak, orokorrean, indarreko legeriak emandako funtzioak eta, bereziki, ikasturte bakoitzerako ikasturtea antolatzeari buruz hezkuntza sailburuordearen Ebazpenak xedatutakoak onartuko ditu. Kide bakoitzak sailaren funtzio erkideak partekatzeaz gain, ebazpenari jarraiki banan-banan dagozkionak onartuko ditu.

2. Sail honek aniztasunari arreta eskaintzeko jarduerak antolatu eta koordinatzen ditu:

- a) Haur eta Lehen Hezkuntzako taldeetan egoera bereziak hauteman eta egoera bakoitza aztertu ondoren, konponbidea modu egokian bideratzea. Konponbide honetan ikastetxetik kanpoko profesionalak parte har dezakete ala ez.
- b) Halaber, zailtasun berezia duten banan-banako kasuei arreta eskaintzen diete: diagnostikoa, tratamendua, aholkularitza, prebentzioa edo informazioa. Ikastetxetik kanpoko profesionalak parte har dezakete ala ez.
- c) Hezkuntza-zailtasunak dituzten ikasleak hautematea eta katu bakoitzean esku-hartzea diagnostikatu eta eskaintzea. Ikastetxetik kanpoko profesionalak parte har dezakete ala ez. Jasotako informazio guztiarekin, eskola-arazoaren jatorria baloratzen da, tutoreei eta familiei

<sup>21</sup> Ohiz ikastetxeetan funtzionatzen dutenak dira. Irakaskuntza-taldeak, orokorrean, eta tutoreak EEPLk aurrez ikusten ditu. Sailak eta koordinazio pedagogikorako batzordea beste arauetan aurrez ikusten dira.

<sup>22</sup> Orientazio-sailari eta buruari, EEPLk ez aurreikusi arren, betiere baldintza zehatzak betetzen badituzte, berez aginpide zehatzak onartzen zaizkie ikasturteko antolaketa-gutunetan. Aurtengoak IX. ERANSKINEAN daude. Bigarren Hezkuntzarako pentsatuta dago, baina Lehen Hezkuntzako ikastetxean izan daiteke, tamaina jakina badu. Kasu horretan aholkularia sartu beharko litzateke. Ikastetxearen mendekoa da eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako indarreko xedapenek aurrez ikusten duten ekonomia- eta administrazio-onarpenik ez du.

berri ematen zaie, indartzeko eta errekuperatzeko orientabideak edota programak eskaintzen zaizkie.

- d) Minusbaliotasun-egoera diferenteak edo goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleei arreta berezia eskaintzea.

### **23. artikulua. Behar bereziak orientatu eta arreta eskaintzeko sailaren burua izendatzea**

1. Orientazio-sailaren burua zuzendariak saileko kideen artean urtero izendatuko du.
2. Salbuespen batean izan ezik, ezin daiteke inolaz ere sailaren buru zuzendaritza-kargua duen norbait izenda.
3. Sailaren buruak horren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu; halaber, bileretarako deialdia egingo du eta buru izango da. Azkenik, bere funtzio guztiak betetzeaz arduratzen izango du.

## **II. SEKZIOA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA**

### **24. artikulua. Koordinazio pedagogikorako batzordearen konposizioa**

DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroan koordinazio pedagogikorako batzordea izango da eta honako kideek osatuko dute: zuzendariak (buru izango da), ikasketa-buruak eta zikloko koordinatzaileak, baita aholkulariak ere. Idazkari lanetan adin txikiena dutenen zikloko koordinatzailea arituko da.

### **25. artikulua. Koordinazio pedagogikorako batzordearen aginpideak<sup>23</sup>**

1. Koordinazio pedagogikorako batzordea irakasleen klaustraren batzorde bat da. Bere oinarritzko zeregina curriculum-proiektua egin eta aldatzeko orduan koordinatzea da.
2. Bere zeregina betetzeko, irakasleen klaustroak ikuskatuta, honako aginpideak izango ditu:
  - a) Etapako curriculum-proiektuak egin eta aztertzeke gidalerro orokorrak zehaztea.
  - b) Etapako curriculum-proiektuak eta horien aldaketak egin eta aztertzen direla ikuskatu eta idazteaz arduratu eta hori guztia koordinatzea; ikastetxeko hezkuntza-proiektuarekin bateragarritasuna ziurtatzea.
  - c) Etapako curriculum-proiektuan sartuak dauden programazio didaktikoak, orientazio akademikorako plana eta tutoretza-ekintzaren plana egin eta aztertzeke gidalerro orokorrak zehaztea.
  - d) Klaustroak onar ditzan, curriculum-proiektuak proposatzea.
  - e) Etapako curriculum-proiektuak bete eta, ondoren, ebaluatzen direla zaintzea.
  - f) Ebaluazio-eta kalifikazio-saioen plangintza orokorra eta azterketen eta proben egutegia klaustroari proposatzea, ikasketa-burutzarekin bat.
  - g) Etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza-alderdiak eta urteko programazio orokorra, baita ikastetxearen eskola-errendimenduaren eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua ere ebaluatzeke irakasleen klaustroari plana proposatzea.
  - h) Ikastetxeko jardura eta proiektu guztiak ebalua daitezela sustatzea, gobernu-organoen edo hezkuntza-administrazioaren ekimenez gauzatzeko ebaluazioetan lankidetzan jardutea eta ebaluazio horien ondorioz beharrezkoa izanez gero, hobekuntza-planak bultzatzea.

<sup>23</sup> Aginpideak legezko testu desberdinetan jasotakoak daude.

### III. SEKZIOA. TUTORETZAK ETA TALDEKO IRAKASKUNTZA-TALDEAK

#### 26. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea <sup>24</sup>

1. Ikasleen tutoretza eta orientazioa irakaskuntza-funtzioaren barruan sartuta dago.
2. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroan ikasle-talde bakoitzeko tutore bana izango da<sup>25</sup>.
3. Tutorea zuzendariak izendatuko du ikasketa-buruaren proposamenez eta hautagaiak taldean erakusten diharduten irakasleak izango dira. Ikasturte akademiko bakoitzean ikasturtearen antolaketari buruz hezkuntza sailburuordearen ebazpenak dituen argibideei erreparatuko zaie.
4. Ikasketa-buruak tutoreen lana koordinatuko du eta tutoretza-ekintzak behar bezala funtzionatzeko, aldizka bilerak egingo ditu.

#### 27. artikulua. Tutoreen funtzioak

Tutoreek ikasturte bakoitzean ikasturtea antolatzeko ebazpenak atxikitako funtzioak eta zereginak beteko dituzte.<sup>26</sup>

#### 28. artikulua. Taldeko irakaskuntza-taldearen konposizioa eta araubidea

1. Taldeko irakaskuntza-taldea taldeko ikasleei erakusten dieten irakasle guztiek osatuko dute eta tutoreak koordinatuko du.
2. Taldeko irakaskuntza-taldea ebaluazioari buruzko araudian zehaztutakoaren arabera bilduko da, baita taldearen tutoreak eskatuta, ikasketa-buruak deialdia egiten duenean ere.

#### 29. artikulua. Taldeko irakaskuntza-taldearen funtzioak

Taldeko irakaskuntza-taldearen funtzioak honakoak dira:

- a) Taldeko ikasleak ebaluatu eta orokorrean jarraitzea eta hobe ikasteko beharrezkoak diren neurriak zehaztea; hori guztia ebaluazioari buruzko legeria bereziak xedatutako baldintzetan egingo da.
- b) Taldearen bizikidetasun-giroa hobetzeko jarduerak zehaztea.
- c) Taldean sortzen diren gatazkak modu koordinatuan tratatzea eta konpontzeko neurri egokiak zehaztea.
- d) Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikasteko eta irakasteko jarduerak koordinatuak eskaintzea.
- e) Taldeko ikasle bakoitzaren guraso edo tutoreei emandako informazioa ezagutu eta hori egiteko orduan parte hartzea.
- f) Ikastetxeko barne araubideari buruzko araudiak zehazten duen beste edozein.

### IV. SEKZIOA. ZIKLOKO IRAKASKUNTZA-TALDEAK

#### 30. artikulua. Zikloko irakaskuntza-taldearen konposizioa eta araubidea

1. Zikloko irakaskuntza-taldea zikloko tutoreek, irakasle adituek eta zikloan eragina duten beste irakasle batzuek osatuko dute.

<sup>24</sup> Tutoretzaren arau guztiak ikasturtearen antolaketari buruzko ebazpenean oinarritzen dira. X. Eranskina.

<sup>25</sup> Curriculum-aniztasuna, hezkuntzaren esku-hartze proiektu berezi eta osagarriak dituzten taldeetan bigarren tutorea izatea alde batera utzi gabe.

<sup>26</sup> Ikasturte honi atxikitako aginpideak eta funtzioak X. ERANSKINEAN daude.



2. Ikasketa-burutzak tutoretzarik ez duten irakasleak zikloko talde desberdinetan atxikiko ditu, beraz, irakasle guztiak zikloko irakaskuntza-talde batean sartuak egongo dira.
3. Irakasleek astean ordubete eman beharko dute zikloko irakaskuntza-taldearen ohiko bilerak egiteko; gainera, zikloko koordinatzaileak ohiz kanpoko bileretarako deialdia egin dezake, beharrezkotzat jotzen duenean edo kideen herenak eskatzen duenean.

### **31. artikulua. Zikloko irakaskuntza-taldearen funtzioak**

Zikloko irakaskuntza-taldeek eta koordinatzaileek urtero ikasturtearen antolaketari buruz Hezkuntza Sailaren Ebazpenak eta gainerako indarreko araudiak emandako zereginak beteko dituzte.<sup>27</sup>

### **32. artikulua. Zikloko irakaskuntza-taldeetako koordinatzaileak izendatzea**

Koordinatzaileak ikastetxeko zuzendariak izendatuko ditu zikloko irakaskuntza-taldeetako irakasleen artean, betiere zuzendaritza-kargurik ez badute.

## **V. KAPITULUA. PARTAIDETZARAKO ORGANO BEREZIAK**

### **I. SEKZIOA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO BEREZIAK**

#### **33. artikulua. Partaidetzarako organo bereziak**

OOGren bitartez hezkuntza-komunitate guztiak parte hartzeaz gain, ikasleek eta gurasoen ikasleek parte har dezakete, bai elkartean bidez, bai batzorde desberdinetan.

#### **34. artikulua. Ikasleek parte hartzeko organo bereziak**

LHI DUNBOA Ikasteko Komunitate Zentroan ikasleek parte hartzeko organo bereziak taldeko eta mailako ordezkariak, 3. ziklokoak eta ordezkarien batzarra dira.<sup>28</sup>

#### **35. artikulua. Taldearen ordezkariak**

1. Ikasle-talde bakoitzak zuzeneko eta isilpeko bozketan ikasturtearen lehenengo hilabetean eta ikasturte akademiko osorako mailako ordezkari bat aukeratuko du. Hori ikasleen ordezkarien batzarreko kide izango da. Halaber, ordezkariordea hautatuko da eta ordezkaria ez dagoenean edo gaixorik dagoenean ordezkapena egingo du. Gainera, bere funtzioetan lagunduko dio.
2. Mailako ordezkari eta ordezkariordeen hauteskundeak ikasketa-buruak antolatuko ditu eta berak egingo du deialdia. Ildo horri jarraiki, bozketarako arauak finkatuko ditu eta artikulua honetan 3. atalak xedatutakoa errespetatuko du. Taldeko tutoreekin lankidetzan arituko da.
3. Nolanahi ere, taldeko ikasle guztiak hautesleak izango dira eta guztiek hautatuak izateko aukera izango dute kandidatura aurkezteko beharrik izan gabe. Bozketan ikasle bakoitzak bozketa-paperean izen bakarria idatz dezake. Ordezkaria ikaslerik bozkatuena izango da eta ordezkariordea botoen kopuruarengatik bigarren tokian gelditu dena. Lortutako boto-kopuruan berdinketa izanez gero, mailako ordezkari bezala adin gehiena duena hautatuko da eta ordezkariordea hurrengoa izango da.

<sup>27</sup> 2009/2010 ikasturtekoak XI. ERANSKINEAN daude, baina gainerako erregulazioa ere.

<sup>28</sup> DBHtik aurrera partaidetza-organo berezia sortzea derrigorrezkoa da. Lehen Hezkuntzan nahiz eta goiko mailatan ikasle ordezkarien sistemarekin saiakera egin, partaidetzarako lehenengo mekanismoak ikasleen aukeretara moldatu behar dira.

4. Ordezkariei eta ordezkariordeei kargua ken dakieke, baina aldez aurretik tutoreari txosten arrazoitua egin beharko zaio eta taldeko ikasleen gehiengo osoak hartu beharko du erabakia. Kasu horretan, hamabost egunen buruan aurreko atalean xedatutakoari jarraiki hauteskunde berrietarako deialdia egingo da. Dimisio onartuen kasuan modu berean jardungo dute.
5. Ordezkariei Araudi honek ematen dizkien funtzioak betetzeagatik ezin zaie zigortu.

### **36. artikulua. Taldeko ordezkarien funtzioak**

Honako hauek dira:

- a) Ordezkarien batzarreko bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea.
- b) Gobernu eta koordinazio didaktikorako organoei ordezkatzeko duen taldearen iradokizunak eta erreklamazioak azaltzea.
- c) Mailako ikasleen artean bizikidetasuna sustatzea.
- d) Tutorearekin eta gainerako irakasleekin ordezkatzeko duen mailaren funtzionamenduari eragiten dioten gaietan lankidetzan jardutea.
- e) Ikastetxeak behar bezala funtzionatzeko irakasleekin eta gobernu-organoeekin lankidetzan jardutea.
- f) Ikastetxeko materialak eta instalazioak behar bezala erabiltzen direla zaintzea.
- g) Beren aginpideen esparruan ikastetxeko gobernu-organoei eman edo eskuordetzen dizkieten gainerako funtzio guztiak.

### **37. artikulua. Ordezkarien batzarraren konposizioa eta funtzionamendu-araubidea**

1. Ikastetxearen kudeaketan ikasleek partaidetza berezia izateko organoa EEPLk 30. artikuluan aipatzen du eta ikasle-ordezkarien batzarra deituko zaio.
2. LHI DUNBOA Ikasteko Komunitate Zentroak ikasle-ordezkarien batzarra izango du eta talde desberdinetako ikasleek askatasun osoz aukeratutako ordezkariak osatuko dute.
3. Ordezkarien batzarrak bere funtzionamendu-arauek egingo ditu ikasketa-buruaren laguntzaz.
4. Nolanahi ere, ikastetxeko ikasleen artean izan daitekeen pluraltasuna eta ordezkarien batzarraren eraginkortasuna zaindu beharko dira.
5. Zuzendariak ordezkarien batzarrari espazio egokia eskuratuko dio, bilerak egin ahal izateko. Halaber, behar bezala funtzionatzeko bitarteko materialak eskura jarriko dizkie.

### **38. artikulua. Ordezkarien batzarraren funtzioak**

Honako hauek dira:

- a) Parte hartzen duten batzorde desberdinetara eramateko proposamenak egitea.
- b) Bere aginpideen eremuan AJA aldatzeko proposamenak egitea.
- c) Batzarraren jarduerari buruz ikasleei berri ematea.
- d) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak garatzeko proposamenak egitea.
- e) Bereziki ikasleei eragiten dien beste edozein jarduera edo erabaki.

## II: SEKZIOA. GURASOEN BATZARRA, IKASLE-GURASOEN ELKARTEAK

### 39. artikulua. Gurasoen batzarra <sup>29</sup>

1. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko gurasoen batzarra gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko organo berezia da. Ikasleen guraso edo tutore guztiek osatuko dute. Deialdia ikastetxeko zuzendariak egingo du gutxienez ikasturte akademiko bakoitzaren hasieran eta bera buru izango da. Hori modu horretan egingo da, betiere beste prozedura bat erabakitzen ez bada, artikuluko bereko 2. eta 3.e) ataletan xedatutako ahalmenaren babesean.

2. Gurasoen Batzarrak zuzeneko eta isilpeko botoz barne organoa izan dezake, bilerak prestatu eta erabakiak betetzen direla ikuskatzeko.

3. Gurasoen batzarrak ondorengo funtzioak ditu:

a) Ikastetxeko gainerako organoei egokitzat jotzen dituen proposamenak egitea, horien aginpidekoak diren gaien buruz, irakaskuntzako jardueren programa, prestakuntza-jardueren programa, eskolaz kanpokoak nahiz osagarriak eta kudeaketaren urteko programa gauzatzeari dagokion balorazioa barne.

b) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua garatzean lankidetzarik handiena lortzeko zuzendaritza-taldearekin eta klaustroarekin harremana izatea.

c) Gurasoek ikastetxearen bizian eraginkortasunez parte har dezaten, ekimena bultzatzea.

d) Organo kolegiatuetan dauden gurasoen ordezkariari egindako gestioari buruz berri eman dezaten eskatzea.

e) Funtzionamendu-arauak onartzea.

### 40. artikulua. Ikasle-gurasoen elkarteak

1. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroak ikasle-gurasoen elkarteak onartuko ditu, egoitza eskuratuko die eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzeko erraztasunak emango dizkie, horiek indarreko 66/1987 Dekretuak, otsailaren 10ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle-gurasoen elkarteak arautzen dituenak, xedatutakoarekin bat eratu badira.

2. Zuzendariari dagokio modu iraunkorrean legez eraturako elkarteek erabiltzera bideratutako lokalak zein diren zehaztea, baita elkarteetako ordezkariak eskatuta, espazio erkideak behin-behinekoz erabiltzeko baimena ematea ere.

3. Ez da inolaz ere legez eraturako elkarerik diskriminatuko, OOGn ordezkari batek zuzenean parte hartzeko proposamenari buruz ordezkaritzarik handiena duen gurasoen elkartearen alde xedatutakoa alde batera utzi gabe.

4. Ikastetxeko gobernu-organoei ez dituzte ikasleen gurasoak edo ikasleak berak legez eraturako edozein elkartetan izen-eman edo ez ematera ala ekonomiaren ikuspegitik mantentzera bortxa ditzaketan ekintzak edo ez-egiteak gauzatu.

### 41. artikulua. Legez eraturako elkarten bitartez parte hartzea

Ikasle-gurasoen elkarteak ikastetxean eratuak badaude, honakoak egin ditzakete:

a) Hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra egin edo aldatzeko proposamenak OOGri egitea.

<sup>29</sup> EEPLk sortutako organoa da:

- b) Egokitzen jotzen baditu, ikastetxearen martxari buruzko alderdiak OOGri jakinaraztea.
- c) Beren jardueri buruz hezkuntza-komunitateko kide guztiei berri ematea.
- d) Bertan landutako gaii buruz OOGren informazioa jasotzea, baita egin baino lehen kontseiluaren aztergaien zerrenda ere, proposamenak egin ahal izateko.
- e) Bere ekimenez edo OOGk eskatutako OOGrako txostenak egitea.
- f) AJA aldatzeko proposamenak egitea.
- g) Jarduera osagarriak gauzatzeko proposamenak formulatzea.
- h) Emaitza akademiko orokorrak eta horiei buruz ikastetxeak egindako balorazioa ezagutzea.
- i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta beren aldaketen ale bat jasotzea.
- j) Ikastetxeak onartutako testuliburuei eta material didaktikoei buruz informazioa jasotzea.
- k) Hezkuntza-komunitateko kide guztien artean lankidetzatza sustatzea.
- l) Ikastetxearen instalazioak zuzendariak zehaztutako baldintzetan erabiltzea.

### III. SEKZIOA. BESTE PARTAIDETZA-ORGANO BATZUK

2006-07 ikasturtean Dunboa LHI ikastetxeak Ikasteko Komunitateen proiektuan sartzea erabaki zuen.

Komunitatearen inplikazioa egiatzkoa izateko, helburuak kide guztiek partekatu behar dituzte eta hori oinarritzko elementua da. Halaber, ahalegin guztiak norabide berean zuzendu beharko dira, pertsona guztiek elkartuak egon beharko dute, helburu bera lortzeko.

Helburuak partekatzeko modurik onena honakoa da: irakasleek gain, familiek, ikasleek, elkarteek, irakaskuntzan ez diharduten langileek, boluntarioek eta abarrek proiektu berean parte hartzea. Horregatik, batzorde desberdinak sortuz doaz, ikastetxeak beharrak dituen heinean.

Gaur egun zazpi batzorde daude <sup>30</sup>: **batzorde kudeatzailea, bitarteko, festa eta jarduera berezietarako batzordea, Agenda 21en batzordea, bizikidetasun-batzordea** (mistoak) eta **hezkuntza-proiektuaren batzordea, TIKren batzordea eta metodologia-batzordea (pedagogikoa)**. Azkenekoen bakarrak irakasleen ordezkariekin funtzionatzen dute.

Batzorde horiek gutxienez hiru hilez behin eta koordinatzaileak ala batzordekideen herenak eskatuta, batzordearen lanak eskatzen duen guztietan biltzen dira.

<sup>30</sup> XII. ERANSKINA: ikastetxeen funtzionatzen duten batzorde desberdinen organigrama, konposizioa, funtzioak...

## **II. TITULUA. BIZIKIDETASUN-ARAUAK**

### **I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK**

#### **42. artikulua. Bizikidetasunaren oinarria**

DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroan:

**Bizikidetasun positiboa errespetu, tolerantzia eta berdintasunean oinarritutako harremana delakoan gaude. Ildo horri jarraiki, guztiok ideiak eta sentimenduak askatasunez eta konfiantzaz azaldu ahal izango ditugu.**

**Bizikidetasunetik abiatuta, harremanak hobetzea espero dugu eta, bide batez, errespetatuak, onartuak eta baloratuak sentitzen garen giro lasaia sortzea.**

**Horregatik, gure ustez harremanek jariakorrak eta adostasunera iristeko gai direnak izan behar dute, une oro eta ikastetxearen espazio desberdinetan adiskidetasuna eta lankidetzaren sendotzeko.**

**Bizikidetasun ona ziurtatzeko, hezkuntza-komunitateak guztion artean adostutako arau argiak, zehatzak eta errespetuzkoak egingo ditu eta betebeharrak nahiz eskubideak islatuko dituzte. Nolanahi ere, horiekiko konpromisoa hartuko dugu.**

**Ikastetxe honetan gatazkak erantzun positiboa eskatzen duten egoerak direlakoan gaude. Gainera, bizirako gauzak ikas ditzakegu.**

**Horregatik, gure iritziz hausnarketa eta elkarrizketa beharrezkoak dira, jakitun izanik eta gure erantzukizuna onartuz.**

DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroak bizikidetasunaren oinarri bezala hezkuntza-komunitate guztiaren aldetik ikasleen eskubideekiko errespetua eta babesa onartzen ditu. Era berean, eskubideak erantzukizunez aplikatu behar dira eta ikasleek beraiei dagozkien eginkizunak bete beharko dituzte, Titulu honetan xedatutakoarekin bat.<sup>31</sup>

#### **43. artikulua. Bizikidetasun-plana**

DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroak bizikidetasun-plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatutakoarekin bat.<sup>32</sup> Horretan helburu nagusia bizikidetasun-gatazkak prebenitzea izango da eta gertatuz gero, 201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, xedatzen dituen hautabidezko bideak erabiliz adostutako ekintzen eta neurrien bitartez ebaztea. Beharrezkoa bada, bitartekaritza-prozedurak erabiliko dira.

#### **44. artikulua. Eskubideak berehala babestea**

Ikasleek abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak 6. artikulutik 21. artikulura jasotako eskubideak izango dituzte.<sup>33</sup> Edozein irakasleek ikasle batengan eskubide horiek ez betetzeko edo horien kontra joateko jokabidea duela hautematen badu, berehala esku hartu beharko du eta arduradunari jokabide horrez ahoz ohartaraziko dio eta ikasketa-burutzan agertzea aginduko dio.

<sup>31</sup> XIII. ERANSKINA Irakasleen eginkizun eta betebeharrak, legeria berezian (HLOren III. Titulua) eta orokorrean funtzionarioen legerian (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 69-76 artikulua) daudenak, eta, era berean, administrazio eta zerbitzuetako langileei eragiten dizkietenak. Halaber, sindikatuen legeria aplikatzen zaie.

<sup>32</sup> XVI. ERANSKINA Egungo ikasturterako Urteko Bizikidetasun Plana

<sup>33</sup> XV. ERANSKINAK Dekretu osoa du.





#### **45. artikulua. Eginkizunak betetzearen bermea**

Ikasleek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak 21. artikulutik 27. artikulura bitartean xedatutako eginkizunak dituzte<sup>34</sup>. Edozein ez bada betetzen, ikusten duen irakasleak berehala zuzendu beharko du. Horrez gain, ikasleari ikasketa-buruarengana joatea aginduko dio, ez-betetzearen ondorioz hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak eragozten badira edo zuzenean horien kontra badoa.

### **II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK APLIKATZEN DIRELA BERMATZEA**

#### **46. artikulua. Ikasleen eskubideak babesteko irakasleak nahastea**

DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko irakasle guztiak abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak ikasleei onartutako eskubideak babesteko lankidetzan arituko dira, araudi honetan xedatutakoari eta gobernu-organoen argibideei jarraiki.

#### **47. artikulua. Segurtasunarekin zerikusia duten eskubideei arreta**

1. Tutoreek eta gainerako irakasleek ikasketa-buruari edo zuzendariari tratu txarren arrastoak eta haurren arrisku edo babesik eza jakinaraziko dizkiote, eskubide eta eginbeharrei buruzko dekretuak 7.2. eta 7.3. artikuluetan aurrez ikusten duenerako.
2. Irakasle guztien funtzioa da berdinen artean tratu txarren egoerak prebenitzea edo, hala badagokio, modu goiztiarrean hautematea. Edozein aztarna berehala zuzendaritza-taldeari jakinaraziko zaio, dagozkion protokoloak jarraitzeko.
3. Ikasketa-buruak jolasaldiak zaintzeko irakasleak izendatuko ditu; ikasleek betetako espazio guztia ikusi eta kontrolatzeko kopurua nahikoa izango da. Ikasleek une oro zaintzaren arduradunak ezagutu behar dituzte eta edozein unetan hurbiltzeko aukera izango dute; hala, etengabe ikusi beharko dituzte. Egoerarengatik edo ezaugarriengatik irakasleen aldetik zaintza zailtzen duten espazioak erabiltzea zuzendariak debeka dezake.

#### **48. artikulua. Ohore, intimitate eta norberaren irudirako eskubidea babestea**

1. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroko gobernu-organoek, tutoreek eta irakasle guztiek ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen ohore, intimitate eta norberaren irudirako eskubidea babestu beharko dute. Zuzendaritza-taldeak OOGri grabaketa-bitartekoak, telefono mugikorrak eta, oro har, teknologia berriak erabiltzeko arauak onar ditzan proposatuko dizkio.
2. Ikasgelatik kanpo, eraikinean edo eskolaren barrutian erabiltzea utziz gero, komenigarritzat jotzen diren muga guztiak proposa daitezke eta kasu guztietan hezkuntza-komunitateko kideei, berariaz adostasunik eman gabe, argazkiak atera edo grabatzea debekatuko da. Era berean, ezin daitezke baimenarekin egindako argazkiak eta grabaketak berez baimendutakotik kanpo erabil.

### **III. KAPITULUA. EGINKIZUNAK BETETZEAREN BERMEA**

#### **49. artikulua. Printzipio orokorra**

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak ikasleei ezartzen dizkien eginbeharrak ez badituzte betetzen, betiere, gutxienez, jokabide desegokia izango da eta bizikidetasunaren kontrako jokabidea edo bizikidetasunerako oso jokabide kaltegarria izan daiteke, hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak eragozten baditu edo zuzenean horien kontra badoa.
2. Irakasleak bere kargura dituen irakasle edo pertsona heldu orok eginkizunak betetzen ez direla ikusten badu, bizikidetasunarekin bat ez datorren jokabidea zuzentzeko esku hartu beharko du, aipatu dekretuak eta araudi honek xedatutakoarekin bat.

<sup>34</sup> Ikusi aurreko oharra

## **50. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak**

Ahalik eta eperik laburrenean 201/2008 Dekretuak desegoki, bizikidetasunaren kontrako edo bizikidetasunerako oso kaltegarri bezala definitzen dituen jokabide guztiak zuzendu behar dira. Neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin zerikusia izatea saiatuko da, zuzendu nahi den jokabidearen beharrezko ondorioak direla hautemateko.

## **51. artikulua. Jokabide desegokiak<sup>35</sup>**

1. Jokabide desegokiak arestian aipatutako dekretuak 30. artikuluan adierazten dituenak dira.
2. DUNBOA LHI Ikasteko Komunitate Zentroan jokabide desegokiak zuzentzeko, dekretuari erreparatuko zaio eta lan horietan une horretan ikaslea zaintzen duen irakaslea arituko da.
3. Ikasketa-buruak jarraitu beharrezko prozedura zehaztuko du, betiere araudiari jarraiki, neurria ahozko ohartarazpen hutsa ez denean, tutoreari jakinarazi beharko zaiola kontuan hartuta.

## **52. artikulua. Bizikidetasunaren kontrako jokabideak<sup>36</sup>**

1. Bizikidetasunaren kontrako jokabideak eskubide eta eginbeharrei buruzko dekretuak 31. artikuluan aipatutakoak dira.
2. Bizikidetasunaren kontrako jokabidea ikusten duen edozein irakaslek ikasleari ahoz ohartaraziko dio jokabide horrez, ikasketa-buruarengana edo horri ordezkatzeko dionarengana joatea aginduko dio, gertaerak jakinaraziko ditu eta ikasketa-buruak zuzendariarekin batera zehaztutako prozedurari jarraiki berehala zuzentzeko esku hartuko du.

## **53. artikulua. Bizikidetasunerako oso kaltegarriak diren jokabideak<sup>37</sup>**

1. Bizikidetasunerako oso jokabide kaltegarriak dira eskubide eta eginbeharrei buruzko dekretuak 32. artikuluan xedatutakoak.
2. Edozein irakaslek bizikidetasunerako oso kaltegarria den jokabidea bat ikusten badu, jokabidearen ikasle arduradunari ahoz ohartaraziko dio, ikasketa-buruarengana edo horri ordezkatzeko dionarengana joatea aginduko dio, gertaerak jakinaraziko ditu eta ikasketa-buruak zuzendariarekin batera zehaztutako prozedurari jarraiki berehala zuzentzeko esku hartuko du.

## **54. artikulua. Bizikidetasunaren kontrako jokabideak eta bizikidetasunerako oso kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko prozedura**

Bizikidetasunaren kontrako jokabideak edo bizikidetasunerako oso kaltegarriak direnak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak aurrez ikusitakoa aplikatuko da eta betiere horren III. Kapituluaren xedatutako hautabidezko bideak erabiliz gatazka konpontzen saiatuko da.

<sup>35</sup> XV. ERANSKINA

<sup>36</sup> XV. ERANSKINA

<sup>37</sup> XIV. ERANSKINA

### **III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA**

#### **59. artikulua. Printzipio orokorrak**

Euskal Eskola Publikoaren Legeak 16. artikuluan aurrez ikusitakoa betetzeko eta errendimendu akademikoa ebaluatzeko orduan objektibotasunez egiteko ikasleen eskubidea behar bezala bermatzeko, titulu honetan zehaztutako berme-sistema jarraituko da. Publizitatearen, informazioaren eta gardentasunaren printzipioetan oinarrituta dago.

#### **60. artikulua. Publizitatea**

1. Ikasketa-buruak ikasleek eta beren legezko ordezkariak ikastetxeko curriculum-proiektua lor dezaten bermatuko du. Horretan zeregin edo jakintzagai bakoitzarekin lortu nahi diren oinarritzko helburuak, edukiak eta gaitasunak adieraziko dira.
2. Era berean, arlo edota jakintzagaiak gainditzeko irakasleek eskatutako dituzten gutxieneko edukiei, ebaluazioaren prozedura eta irizpide aplikagarriak eta errekupeazio- eta laguntza-prozedurei publizitatea ematen zaiela bermatu beharko da.
3. Ikasketa-buruak publizitatea adin txikikoen guraso edo legezko ordezkariak iristen zaiela bermatuko du.

#### **61. artikulua. Informazioa ikasleei eta gurasoei**

1. Ikasketa-buruak irakasleen eta ikasleen guraso edo legezko ordezkarien artean komunikazio-bitarteko jariakor eta egonkorrak bermatu beharko ditu, irakaskuntza- eta ikaste-jarduerekin eta, bereziki, eskola-errendimenduarekin zerikusia duen informazio guztia lortu ahal izateko.
2. Tutorearen betebeharrak alde batera utzi gabe, irakasleek ikasleari edo legezko ordezkariari aurreko ataletan aipatutako alderdiei buruz banan-banan eskatzen duten informazioa ematea ezin dezakete uka. Ikasketa-buruari dagokio ikasle bakoitzak egin behar hori betetzen duela ziurtatzea.
3. Ikasketa-buruak irakasle tutoreek taldeko ikasleen gurasoekin gutxienez ikasturtearen hasieran eta ikasturtean zehar, betiere gurasoen herenak eskatzen duenean, bilerak egiten dituztela ziurtatu beharko du. Aipatu bileretan arestian azaldutako alderdiak eta irakasleekin ikasle-taldearen egoera orokorra jakinaraziko dira.
4. Aurreko ataletan aipatutako prozeduren bidez transmiti daitekeen informazioa alde batera utzita, tutoreek ikasleen guraso edo legezko ordezkariak idatziz jakinaraziko diete ebaluazio-saioterako ICPn finkatutako gutxieneko aldizkakotasunarekin saio horietan adostutako informazioa. Helburua hartzaileek informazioa egiaz hartu dutela ziurtatzea da.
5. Halaber, zikloko eta ikasturteko azken saioetan sortutako informazioa transmitituko da. Informazioan gutxienez honako alderdiak landuko dira:
  - Etapako eta arloetako helburu orokorrak lortzeko buruzko balorazioa.
  - Arlo edo jakintzagaietako edukian barneratzeko buruzko balorazioa.
  - Kalifikazio partzialak eta ikaste-balorazioak.
  - Hala badagokio, hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa.

Gainera, aipatu txostenek gora jo edo gelditzeko hartutako erabakia arrazoitu beharko dute. Tutoreak idatziko ditu, irakaskuntza-taldearekin eztabaidatu ondoren eta ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo jakintzagaietan irakasle arduradunen proposamen edo txostenak kontuan hartuko dituzte. Txostenak ikastetxean geldituko dira eta zikloko edo hurrengo mailako ikaste- eta irakaskuntza-prozesua bideratuko dute. Irakasleek ikasgelako programazioak moldatzeko abiapuntua izango dira.

## **62. artikulua. Lan, proba eta ariketa zuzenduak aztertu eta kontserbatzea**

1. Ikasleek eta, hala badagokio, gurasoek eta legezko ordezkariak lan, proba, azterketa eta ariketa guztiak lortu ahal izango dituzte, beren errendimenduaren ebaluazioan eragina badute. Zuzendu eta kalifikatu ostean, etxera bidaliko dira eta legezko tutoreak sinatzen dituztenean itzuli beharko dira.
2. Zuzentzeko orduan, ez da bakarrik kalifikazio kualitatibo edo kuantitatiboa emango, akatsak edo hutsak adierazi edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua eman beharko dira ere bai.
3. Ikasturtearen une guztietan probak, lanak eta ariketak lortu ahal izateko, irakasleek ikastetxean gordeko dituzte.
4. Epe hori amaitutakoan, bota edo ikasleei entrega dakizkie, betiere erreklamaziorik ez bada izan eta, ondorioz, ebazteko kontuan hartu behar ez badira.